

GURE IZKUNTZA

BIZI DEDILLA BETI... !BETI, BETI!

NABAITZENDET emen eta an, euskerarekin au edo ura egin bear dala aritzea baño, zenbat ohea litzakean guziok euskeraz itzegitea. Ala aditzera emango genuke gure euskera zarra benetan eta biotzetik maite degula.

Gauza samingarria da askotan eta maiz ikusten deguna: menditik datozen gizon ta emakumeak, uri aundietan bizi diranean, mendiez eta euskaraz errazki aztutzea, basterrean uzteko gauzak balira bezela.

Entzun bedi euskera, mendietan ez ezik, uri aundietan ere. Itzegin bezate euskeraz, gizon ta emakumeak, zar ta gazteak, aberats eta beartsuak, nagusiak eta morroiak. Euskeraz euskaldun guztiak mintzatzen badira, euskaldunak dirauten artean, euskerak iraungo du. Eta euskaldunak, aintziñatik datoz, eta urrutiko egunetaraño irichi bear dute. Euskaldunak iraungo dute beti, beti, beti. Iraun beza berekin, gure euskera zar maitagarriak. ¡Bai, milla bider, bai.

F. LÓPEZ ALÉN (*Mendiz-Mendi*).

EUSKAL-ERRIA-ren zuzendaria.